

## ORIO EKIPAMENDUAK

### AZKEN SAIOKO AKTA

**Noiz eta non:** 2017-12-13, 19:00, Kultur Etxean.

**Partaideak:** guztira 36 lagun. Horietatik 18 emakumeak eta 18 gizonak.

#### Gai-ordena:

- Sarrera
- Prozesua zergatik eta zertarako egiten den azaldu
- Prozesuak eman duena aurkeztu
- Taldeetan lana:
  - Ekarpak edota proposamen berriak jasotzea
  - Irizpideak landu eta lehenetsi (1-3)
  - Ekipamendu berriak lehenetsi (4)
- Talde handian:
  - Ekipamendu berriak lehenetsi (gometxak)
  - Irakurketa orokorra egin
- Hurrengo urratsak
- Saioaren balorazioa – (aurpegitxoak)

#### Landu eta jaso direnak:

##### 1. Prozesua zergatik eta zertarako

Prozesua zergatik eta zertarako egiten den azaldu zen: Udalak herrian dauden ekipamenduei buruzko hausnarketa egin nahi du herritarrekin. Zehazki, nahi duena da:

- Orion dauden ekipamendu guztiez jabetzea eta balioan jartzea,
- Horien mantenuak suposatzen duenaz konturatzeko
- Ditutzen ekipamendu beharrak identifikatzeko

## 2. Prozesuak eman duena

Elhuyarreko kideek PPT baten bidez prozesu honek orain arte eman duena aurkeztu zuen.

1. Orioko ekipamenduen zerrenda eta berauen ezaugarri nagusienak jaso ziren dokumentu batean.
2. Bi saio egin dira azaroan, elkarteetako ordezkariekin, bi lan egiteko: gaur egun Orion dauden ekipamenduez jabetzeko eta beharrak identifikatzeko.

Bi saio horietan ekipamenduetan egin beharreko hobekuntzak identifikatu ziren alde batetik, eta bestetik, aurrera begira eraiki edo egokitu beharreko ekipamendu berriak zehaztu ziren.

## 3. Taldeetan lana

5 talde egin genituen eta taldeetan orain arte elkarrekin egon izan ez direnekin elkartzeko eskatu genien. Taldeetan hurrengo hiru lan hauek egin zituzten:

1. Ekarpen edota proposamen berriak

Aurreko saioetan egon ez, eta proposamen berriren bat izanez gero, jasotzea. Honakoak jaso ziren:

- ✓ Aurreko saioan aipatu eta dokumentuan jaso ez zen proposamena: Kofradia kultura eta turismo gune bezala egokitzea.
- ✓ Baserri bideak konpontzea eta urak bideratzea (hobekuntza bezala).
- ✓ Gizarte zerbitzuak optimizatzea (hobekuntza bezala).

2. Irizpideak landu eta lehenetsi

Horretarako irizpideen zerrenda izan zuten (bakoitzak berea) eta lehenengo bakoitzak bere ustez garrantziaren arabera sailkatu ondoren, taldean 3 irizpide garrantzitsuenak adostu zituzten, eta 1etik 3ra sailkatu.

Honako irizpideei eman zieten garrantzia:

- Emango zaion funtzioaren garrantzia (5 talde)
- Ase gabe dagoen behar bati erantzutea (3 talde)
- Erabiltzaileen aniztasuna (adina, jatorria, arloa...) (3 talde)
- Erabiltzaile-kopurua (2 talde)
- Lehendik dagoen ekipamendu edota zerbitzu bat indartzen laguntzea (2 talde)
- Erakunde askorentzako erabilgarri izatea (talde 1)



3. Ekipamendu berriak lehenetsi

Proposatzen diren ekipamendu berrietatik 4 lehenetsi zituzten. Horietatik garrantzia gehien duten zak (gometxa berdea) eta garrantzia gutxiago duten beste zak (gometxa urdina) sailkatu zituzten, eta amaitzeko, hormetan zeuden paperetan gometxak ipini zituzten.


**4. Irakurketa orokorra**

Saioan honela lehenetsi ziren proposatutako ekipamendu berriak:

- I. **Auditorioa** hiru taldek lehenetsi zuten garrantzia handiarekin, eta **parke estaliak** talde guztiek lehenetsi zuten, baina garrantzia gutxiagoarekin orokorrean:




- II. Hiru taldek lehenetsita, horietako bik garrantzia handiarekin eta besteak garrantzia gutxiagorekin: **Ortzaika auzoan elkartzeko gunea**




- III. Bi taldek hautatuak: **Kofradia eta frontoia**. Kofradia garrantzia handiarekin sailkatua, eta frontoia, talde batek garrantzia handiarekin eta besteak ez hainbesterekin. Kontuan izan behar da kofradiaren kasuan talde batek auditorioarekin lotzen duela, bertan ikusten baitu kokatuta.




ORIOKOU DALA






IV. Talde bakarrak, baina garrantzia altuarekin sailkatua:



V. Talde bakarrak eta garrantzia gutxiagorekin lehenetsi zirenak:



## 5. Balorazioa

BALORAZIOA				
HERRITARREN PARTE-HARTZEA	xxx	xxxxxxxxxxxxxx	XXXXXXXXXXXXX xxxxxxx	xxx
LANERAKO GIROA		xx	XXXXXXXXXXXXX xxxxxxx	xxxxxxxxxxxxxx xxxx
GAIAK LANTZEKO MODUA	xx	Xxxxxxxxxx	XXXXXXXXXXXXX xxxxxxxxxxxxx	xxxx
JASOTAKO INFORMAZIOA		xxxxx	XXXXXXXXXXXXX xxxxxxxxxxxxx	xxxxxxxxxx
EGINDAKO LANAREN EMAITZA	xx	xxxxxx	XXXXXXXXXXXXX XXXXXXXXXXXXX xx	xx

### BESTERIK ERANTSI NAHI DUZU?:

- Dokumentazioa aurrez bidaltzea, edo Kultur Etxean ikusteko aukera izatea, edo Web-gunean, eskertuko nuke.
- Merkatariek ezin izan dute etorri, dendak 8etan ixten direlako.
- Egindako lanaren emaitza ikusteko dago.
- Udalak aintzat hartzea espero dut guztiok egin dugun ahalegina.
- Beste dinamika mota baten aldekoa naiz. Proiektu berriak eztabaidatzeaz gain, hobekuntzen artean ere aukerak lehenestea litzateke egokiagoa.
- Gutxienez lanean segi.
- Gazteak faltatu dira.
- Aniztasunaren ikuspegitik faltan bota ditut kanpotik etorriberriak, musulmanak...
- Ez dadila hemen geratu...
- Emaitzak ikusi beharko dira

### Bestalde, herritar batek lau ekarpen egin zituen:

- Hondartza aldera 2 eraikin (kirol portukoak) daude hutsak. Han ez litzateke zerbait egin beharko?



- Aparkalekuak: aste buruetan beheko kalean ezin da aparkatu, goiko kalekoekin desabantailan gaude. Zergatik ez da denentzako peatonalizatzen?
- Plaza oinezkoentzako, batzuetan bai, besteetan ez. Edo bai edo ez, bestela arriskutsua izaten da haurrentzat.
- Txakur arriskutsuen legedia betearaztea, eta Dikeko parkera bideratzea, han beraiantzako gunea jartzea.

Honenbestez, bilera amaitutzat eman zen, eta Udalak konpromisoa hartu zuen esandakoak aintzat hartzeko. Bestalde, hemendik ateratzen den dokumentua publiko jarriko da web-gunean.